



Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

## **EBAZPENA (Esptea.: 5/2014, BILBOKO PORTURA SARTZEA)**

### **Osoko bilkura**

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK) bilera egin du, goian aipatutakoak elkartuta, 2015eko irailaren 25ean, eta honako Ebazpena eman du, 5/2014 BILBOKO PORTURA SARTZEA espedientean.

### **I. AURREKARIAK**

2. 2014ko azaroaren 14an, Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) erregistrora, BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAK (BPA) ustez lehiaren defentsarako legedia hautsi izanaren inguruko salaketa bat iritsi zen, garraiolari autonomoei portuko instalazioetara sartzeko txartel batzuk ukatu eta garraiolari-kooperatibei, berriz, eman zizkielako.

3. 2014ko azaroaren 25ean, LEAko Ikerketa Zuzendaritzak, ebazpen baten bidez, informazio erreserbatu bat abiatzeko agindua eman zuen, eta ondoren, kasuan kasu, zigor-espedientea abiatzekoa, garraiolariak Bilboko Portuko instalazioetara sartzeko sistemarekin lotuta.

4. 2014ko abenduaren 29an, BPARI honako informazio hau eskatu zitzaion:

- Garraiolari autonomoei portuko instalazioetara sartzeko txartelak ukatzeko justifikazioa.
- Portuko instalazioetara sartzeko txartelak kooperatiben bidez bakarrik emateko justifikazioa.

Aipatutako informazioa 2015eko urtarrilaren 16an jaso zen.

5. 2015eko otsailaren 2an, salatzaileei honako informazio hau eskatu zitzaion:

- Aipatutako txartela daukatenei baimentzen zaizkien sarbide motak: oinezkoentzako sarbideak, ibilgailuentzako sarbideak edo biak.



- Aipatutako txartela ez edukitzeak langile autonomoei portuko instalazioetarako sarbidea erabat eragozten dien.
- Beste modu batera sartzea onartzen bazaie, txartela ez edukitzeak eragiten dizkien kalteak.
- Txartelik lortu ezean portura sartzeko alternatibak dauden, eta baldin badaude, horien deskribapena.

Aipatutako informazioa 2015eko otsailaren 12tik 27ra bitartean jaso zen.

**6.** 2015eko martxoaren 5ean, LEAko arduradunek portuko barrutia bisitatu zuten, oinezkoak Santurtziko herrigunetik portura sartzeko azpiegiturak egiaztatzeko. BPAko arduradunekin eta salatzaileekin bilera bana egin zen.

## **II. FROGATUTAKO EGITATEAK**

**7.** Portuko instalazioetara sartzeko oinezkoentzako tornu bat dago, instalazioetarako sarbide nagusitik 100 bat metrora kokatuta.

Tornua automatikoki sartzeko txartel baten bidez irekitzen da eta BPAk enpresa kooperatibo batekin zerikusia daukatela frogatzen duten pertsoneri ematen die txartel hori. BPAk ez die aipatutako txartela ematen enpresa kooperatibo batekin ohiko harremana daukatela frogatzen ez duten langile autonomoei.

Aipatutako txartela eduki ezean, oinezkoak tornuaren ondoan kokatutako atezaindegi batetik sartzen dira.

Portuko poliziarri NANA erakutsi eta portuko barrutira sartzeko beharraren justifikazioa eman behar zaizkio.

**8.** Egiaztatutako jardunbideak operadoreen oinezko sarbideari bakarrik eragiten dio. Beraz, ez dauka eraginik merkantzien zamalanetan.

**9.** Portuko barrutira sartzeko oinezkoentzako beste sarbide bat dago, Santurtziko herrigunearekin lotzen duen pasabide baten bidezkoa.

LEAk egiaztatu duenez, pasabide horren bidezko sarbidea librea eta erabilera publikokoa da; izan ere, salaketa aurkeztu baino hilabete batzuk lehenago, BPAk ordura arte martxan zegoen ixte automatiko bat desgaitu zuen –ixte horren kontrako salaketak jaso ziren, sarbidea modu diskriminatorioan mugatzeagatik.



### III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

#### 1. Ebazpena emateko eskumena duen organoa.

##### 10. LDLko 49.3. artikulua honako hau xedatzen du<sup>1</sup>:

Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, ustez lege honen 1., 2., eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabaki eta ordura arteko jarduerak artxibatu ahal izango ditu, Legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeko 10. artikulua honako hau xedatzen du<sup>2</sup>:

10. artikulua.- Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira: (...)

e) Administrazioak bere kabuz hasitako jarduerak edo salaketak artxibatzea ebaztea, hala egin behar denean, zehapen-espeditente bihurtu baino lehen, (...)

#### 2. Aztertutako jokabidea

11. LDLko 2. artikulua araberak, merkatu bateko nagusitasunezko posizioa gehiegikeriaz erabiltzea debekatuta dago.

Artikulu horretan xedatutakoa aplikagarria izan dadin, bi baldintza hauek bete behar dira, gutxienez: batetik, operadore ekonomikoak erreferentziazko merkatuan nagusitasunezko posizioa izan behar du; eta, bestetik, jokabideak gehiegizkoa izan behar du. Artikuluan, gehiegizkotzat jotzen da, besteak beste, merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan prestazio baliokideetarako baldintza ezberdinak ezartzea, betiere horrek lehiatzaile batzuei desabantailak eragiten badizkie beste batzuen aurrean.

12. Kasu honetan, BPAk –portuko jabetza publikoa kudeatzeaz eta antolatzeaz arduratzen den erakundea–, portuko barrutirako sarbideak kontrolatzeko eginkizunetan, oinezkoak sartzeko irizpide desberdinak ezarri dituela frogatu da, eta irizpide horiek operadoreei ematen dien tratamenduan diskriminazio arin bat eragiten dutela, sarbide automatikorako txartel bat ematea kooperatiba bateko kide izatearen mende uzten duelako.

<sup>1</sup> 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzkoa (BOE, 159. zk., 2007ko uztailak 4).

<sup>2</sup> 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa (EHAA, 29. zenbakia, 2012ko otsailak 9).



Hala ere, kontuan izanda diskriminazio horrek ez diola eragiten salgaien porturako sarbideari eta ez dela frogatu jokabide horrek ez portuko operatiban ez eragindako operadoreen merkataritza-jardueran ondorio negatiboak eragiten dituenik, lehiari eragina izateko, eta horren ondorioz, zehapen-espeditate bat hasteko, behar adinako garrantzirik ez duela ondoriozta daiteke.

Izan ere, sarbide automatikorako txartelak ukatzeak garraiolari autonomoi oinezko gisa sartzea ez eragozteaz gain, garraiolariak Bilboko Portuarekiko egiten duten jarduera ekonomikoa, portuko zerbitzuen gunera sartzea justifikatzen duena –salgaien zamalanak– ibilgailuen bidezko sarbidean oinarritzen da eta horri dagokionez ez da garraiolariaren egoeraren arabera agindu ezberdinik eman.

#### **IV. EBAZPENA**

**BAKARRA.-** Ikerketa Zuzendaritzaren ebazpen-proposamena ontzat hartzea, eta ondorioz, zigor-prozedurarik ez hastea, garraiolariak Bilboko Portuko instalazioetara sartzeko sistemari dagokionez.

Ebazpen hau Ikerketa Zuzendaritzari, salatzaileei eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinarazi behar zaie. Ebazpen honek administrazio-bidea amaituko du eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunetik hasita.